

TOLOSA ▶

Gaur, beste
sei saio
Titirijain



Ipuin klasikoak eta
modernoak dira ▶ 2

Orexako taberna eta jatetxea berriro zabaldu dute «gogo handiz»

ARDURADUNA ▶ Lurdes Uzkudun tolosarrak ireki du
beste bi lagunekin; herriari «bizia» emango dio ▶ 6



Jende asko elkartu zen ostiral gauean Orexako taberna-jatetxearen irekieran. MADDI SOROA



OLAI A ESKITXABEL

Perurenaren altxaldiak,
galderak eta erantzunak

ORENDAIN ▶ 100 kiloko harriarekin jolasean,
Euskal Herriko historiaz, euskaraz eta
'Goenkale'-z aritu zen leitzarra ▶ 5

VILLABONA ▶

Musika, antzerkia eta
txotxongiloak
abenduko egitarauan

'Kutsidazu'-ren azken saioa tartean ▶ 4

TOLOSA ▶

Hegoaldek,
partidu
txukuna eta
garaipena

Diamante Riojari 3-1
irabazi zion ▶ 3

LEITZA ▶

Igor Astibia askatzea
eskatu dute hileroko
kontzentrazioan

Prensaurrekoaren erabilpena
komunikabideetan salatu zuten ▶ 7

TOLARGIK eta TOLOSA GASAK
energiatz betetako egutegi bat aponituko dizute.

Tolosar gutxiak gure herrian inbertitu duten
energia, geroz eta dituztuen den Tolosa
baten irudiekin saritu nahi duguz.
Zator gure bulegoetara eta har ezazu zure
egutegia.

BUKATU ARTE

TOLARGIK TOLOSADA

Pablo Gonsalves, 34-bidea Asteategia, 18-bidea

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua:
68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Tolosa, M. Isabel. Kale Nagusia 7 (Tolosa) 943 67 06 48.

Erviti, O. Lizarraga 7 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publi@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aitztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaldea. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Sukaldaria behar da asteburuetan tabernan lan egiteko. 943 69 19 33.

SALGAI

Taberna. Gazte taberna salgai Tolosan. 660 17 81 83.

Ibarretxek elkartasuna adierazi die auzipetuei

'EGUNKARIA AUZIA' ▶ Juan Jose Ibarretxerekin bildu ziren atzo Ajuria Enean *Egunkaria auzia*-gatik auzipetuta dauden zortzi lagunetatik sei; Martxelo Otamendi tolosarra horien artean, eta seiek eskertu zuten Jaurlaritzako lehendakariak azaldutako elkartasuna. Abenduaren 3an Espainiako Auzitegi Nazionalera autoa jasotzera joan behar dute. HITZA



TITIRIJAI ▶

Gaur, ipuin klasikoak, objektuak eta bestelako istorioak

Bulgaria, India, Frantzia, Italia, Hungaria eta Espainiako konpainiek dute gaur bere txanda

ERREDAKZIOA

Gaur beste sei ikuskizun egongo dira Tolosan, areto desberdinetan, Titirijairen barruan. Hauek dira emanaldi bakoitzaren sinopsi txikiak.

'Peter Pan'. James Matthew Barryren istorio ezagunaren moldaketa libre. Arduraren arazoan oinarrituta dago. Wendy txikia hazi behar duen une zailan dago eta Peter Pan agertzen da leihotan, hazi nahi ez duen bihurri txikia, eta betirako ume izatea erabakitzen du. 50 minutu.

'Swaagat (Festa Rajhastanen)'. Musika eta dantza mundutik datozen kanpoko errefortzu batzuekin, bi konpainiatako artistek osatzen dute. Swaagat-ek ongietorria esan nahi du, Indiako erregeak aintzinean bere erreinua bisitatzeko zuenean, jendeak omeneko swaagat batekin ospatzen zuen.

'Burbuilatik'. Urez betetako burbuilan bizi den pertsonaia kontaktatzen du istorioa. Bihar ibaiaren bidea hasiko du. 42 minutu irauten du.



Swaagat (Rajhastanen Festa).

'Txanogorritxu'. Tanti Cosi Progetti-ren ibilbideak ipuin klasikoetatik jarraitzen du. Hiru zerritxoan eta Hansel eta Grettelen ondoren, Perrault et Grimm anaien fabulan kokatzen du arreta. 50 minutuko iraupena.

'Craking clapping'. Ikuskizunaren protagonistak objektuak dira, hitz egiten ez dutenak, soinuak bidaltzen dituzte. Istorioa zaraten eta egoeren objektuen arteko harremanen joko erritmikoaren bitartez kontaktatzen da. 50 minutu irauten du.

'La vuelta al mundo en 80 dias'. Haur literaturaren klasiko garrantzitsuenetakoa, Julio Vernerena. Passpartout Phileas Foggen etxezainak antzina-ko jostailu bilduma egiteko 43 minutu eta 55 segundo ditu, nagusia siestatik esnatu aurretik. Giza harremanek balio berria hartzen dute: adiskidetasuna, maitasuna eta arrazen arteko integrazioa. 45 minutu irauten du.

TITIRIJAI ▶ EGITARAUA

GAUR

10:30, 15:00 eta 18:30,

Kultur Etxea. Atelier 313

(Bulgaria): *Peter Pan*.

10:30 eta 15:00, **Beotibar.**

Pitara Putli (India):

Swaagat-Festa Rajhastanen.

11:00 eta 15:00, **Kasinoa.**

Brakabrik Theatre (Frantzia):

Burbuilatik.

11:00, 15:00 eta 17:30,

Leidor. Tanti Cosi Progetti

(Italia): *Txanogorritxu*.

12:00 eta 15:00, **Gorosabel.**

Harleking Babszinaz

(Hungaria): *Craking, clapping*

obra.

20:30 eta 22:30, **Kasinoa**

(helduak). Fernan Cardama

(Espainia): *La vuelta al mundo*

en 80 dias.

GABONAK ▶

Deia, Gabonetako Azoka Berezian parte hartzeko

Udalak Tolosako merkatarik eta Zerkausiko merkatarikoko saltzaileak gonbidatu nahi ditu abenduaren 18an herriko hainbat gunetan izango den Gabonetako Azoka Berezian parte hartzera. Interesa duenak 943 69 74 54 telefono zenbakira dei dezala, abenduaren 3a baino lehen.

INAUTERIAK ▶

Jai Batzordearen bilera egingo dute bihar iluntzean

Jai Batzordeak bilerara deitu du biharko, Inauterietako karrozen eta konpartsen lehaketari buruz hitz egiteko; Kultur Etxean, 19:00etan izango da. Antolatzaileek diote berrikuntzak daudela, eta parte-hartzaileen iritzia jasotzea garrantzitsua dela. Bestalde, Udalak prest du Ferialekua karrozen eta konpartsen gune izateko. Erabili nahi duenak Aranburu Jauregira joan behar du, tokia gordetzeko.

HEZKUNTZA ▶

Orixeko ikasleen gurasoentzat hitzaldia, gaur

Nola lagundu gure seme-alabei ikasten? hitzaldia eskainiko dute gaur, 19:00etan, Orixe institutuan, Batxilergo 1. eta 2. mailako eta DBHko 4. mailako ikasleen gurasoentzat.

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakum. Ohorezko Maila.

Hegoalde-Diamante Rioja 3-1

Saillkapena ▶

1. Femesala Elx 30 puntu
2. Futsi Navalcarnero 26 puntu
3. Foticos Zaragoza 24 puntu
4. UCAM Murtzia 22 puntu
5. Club Teledeportivo 19 puntu
6. Ourense 19 puntu
7. Ketal Fuenlabrada 16 puntu
8. Mostoles 14 puntu
9. Soto del Real 13 puntu
10. Diamante Rioja 12 puntu
11. Gironella 11 puntu
12. Hegoalde Tolosa 10 puntu
13. Arturo Eyres Valladolid 7 puntu
14. Goierri Urrebu 4 puntu
15. Valdetres Meiras 4 puntu
16. Cabanyal Valencia 1 puntu

Lurraldeko Maila.

T. Lakuntza-Bilkoin Legorreta 3-4

Nesken Liga.

Tinta Billabona-Ordizia 1-3

Jubenilen Maila.

GSI Bilbo-Lauburu 3-7

ESKU PILOTA

ELKARTEEN ARTEKOAK

Kadeteen 1. Maila.

Añorga 1-Elordi Herrigintza 22-13
(Ibarguren-Artola)

Kadeteen 3. Maila.

Urneta-Elordi Herrigintza 21-22
(Zabala-Lobregat)

Gazteen 1. Maila.

Anaitasuna-Aurrera Saiaz 22-17
(Koldo Galarraga)

Gazteen 2. Maila.

Mundarro-Elordi Herrigintza 18-22
(Olano-Irure)

Nagusien 1. Maila.

Aurrera Saiaz-Arrasateko 12-22
(Unai Aspe)

Aurrera Saiaz-Zazpitu 17-22
(Mikel Beloso-Jabi Oteiza)

Nagusien 3. Maila.

Aurrera Saiaz-Anaitasuna 22-07
(Igor Aranzabe-Eneko Galarraga)

Aurrera Saiaz-Murumendi 22-16
(Ugaitz Renobales-Imanol Pastrain)

FUTBOLA

Gorengoen Maila.

Tolosa-Oiartzun 4-1

Saillkapena ▶

1. Tolosa 27 puntu
2. Ordizia 25 puntu
3. UPV/EHU 23 puntu
4. Touring 22 puntu
5. Zarautz 21 puntu
6. Hondarribia 21 puntu
7. Aretxabaleta 19 puntu
8. Real Union B 18 puntu
9. Mutriku 18 puntu
10. Orioko 18 puntu
11. Trintkerpe 17 puntu
12. Urola 16 puntu
13. Mondragon 16 puntu
14. Pasajes 16 puntu
15. Beti Gazte 15 puntu

16. Anaitasuna 14 puntu

17. Aloña Mendi 14 puntu

18. Bergara 12 puntu

19. Zestoa 12 puntu

20. Oiartzun 8 puntu

Nesken Liga.

Añorga-Tolosa 2-2

Lurraldeko 1. Maila.

Amara Berri-Tolosa B 1-0

*Leitzako Aurrera taldeak atsedean izan du asteburu honetan

Saillkapena ▶

1. Allerru 23 puntu
2. Martutene 21 puntu
3. Beti Ona 20 puntu
4. Euskalduna 19 puntu
5. Mariño 17 puntu
6. Irun 17 puntu
7. Roleta 16 puntu
8. Ostadar 15 puntu
9. Lengokoak 15 puntu
10. Astigarragako 14 puntu
11. Behobia 14 puntu
12. Vasconia 12 puntu
13. Gure Txokoa 11 puntu
14. Amara Berri 10 puntu
15. Tolosa B 8 puntu
16. Ordizia 8 puntu

Lurraldeko 2. Maila.

Amaroz-Intxurre 2-4

Sanpedrotarra-Danena 6-2

Saillkapena ▶

1. Sanpedrotarra 23 puntu
2. Usurbil 15 puntu
3. Danena 15 puntu
4. Intxurre 12 puntu
5. Amaroz 12 puntu
6. Lazkao 11 puntu
7. Lasarte Oria 6 puntu

Jubenilen Euskal Liga.

Zaila-Tolosa 0-3

Jubenilen 1. Maila.

Intxurre-Billabona 3-0

Kadeteen Euskal Liga.

Tolosa-Indartsu 1-2

FUTBOL 7

1. Maila.

Ibarrako GA-Zibibito Dance Club 1-1

Lanbroa Dickens-Robers 1-2

Saillkapena ▶

1. Robers 27 puntu
2. Zibibito Dance Club 23 puntu
3. Knauf Dec. Nuñez 23 puntu
4. Perku taberna 18 puntu
5. Bataplan 18 puntu
6. Easo Motor 17 puntu
7. Bar Ignacio-Hondarribia 14 puntu
8. Zardoya Otis 14 puntu
9. La Kabutzia 12 puntu
10. Callejo Lanperna 11 puntu
11. Ibarako Gazte Asanblada 10 puntu
12. Kroms 10 puntu
13. Irish Guinness 8 puntu
14. Lanbroa Dickens 8 puntu
15. Cesar Rueda Seguros 6 puntu
16. St. Etienne Cafe Bar 2 puntu

2. Maila A.

Bar Shanti Kirolak-Disco Bar Egur 2-0

Saillkapena ▶

1. Ekin Fisioterapia Zentroa 23 puntu
2. Pub Eguri 23 puntu
3. Bar Shanti Kirolak 22 puntu
4. Ron Cartavio 20 puntu
5. Akeleena sagardotegia 20 puntu
6. Disco Bar Egur 19 puntu
7. R. Izkiña-Pasaia 17 puntu

8. Taberna Dani 16 puntu

9. Eibartarra Dance Club 12 puntu

10. Ikena 11 puntu

11. Encofrados Iguazuri 11 puntu

12. Fermax Instala. GC 8 puntu

13. Papeleria Tamayo 8 puntu

14. In the line 7 puntu

15. Cabo Rojo-Pyxies 5 puntu

16. Nin Climatizacion 3 puntu

ZESTA-PUNTA

ELKARTEEN ARTEKOAK

Kadeteak.

Beotibar 1-Donostia Jai Alai 1 11-30
(Telleria-Izagirre)

Nagusiak.

Beotibar 2-Zumaia 2 20-35
(Trabazos-Gonzalez)

Donostia Jai Alai 2-Beotibar 1 25-35
(Artebe-Errondosoro)

SANTA LUZIA TXAPELKETA (FINALAK)

Alebinak.

Lopez-Uranga / Mugerza-Odrizola 15-05, 15-08
(Beotibarko Beñat Lopez txapeldun)

Infantilak: 3.-4. postua.

Ettxabe L.A.-Gabarain / Erauskin-Sanchez 15-06, 13-15, 10-7
(Beotibarko Ignazio Gabarainek 3. postua)

Infantilak: finala.

Izagirre-Alberro / Manterola-Gurrutxaga 14-15, 15-10, 10-03
(Beotibarko Izagirre txapeldun)

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

Partida txukuna, eta hiru puntuak etxean

3-1 irabazi dio Hegoaldeko Diamante Rioja taldeari; lasaitasuna eta poza ekarri dizkie garaipenak Tolosakoei

ERREDAKZIOA

Zaleen aurrean garaipena ospatzeko aukera izan zuen larunbatean Hegoaldeko 3-1 irabazi zion, Berazubín, Diamante Rioja (Errioxa, Espainia) taldeari. Partida ona eginez irabazi, gainera.

Bi taldeek joko biziz eta gogor erasotzen eman zioten hasiera partidari. Gol aukera asko izan zuten, eta faltei dagokienez ere parekaturik aritu ziren Diamante eta Hegoalde. Ondorioz, tiro liberako aukera izan zuten. Dena den, 10. minutura arte ez zen golik ikusi Berazubín. «Lehen zatian berdintu aritu gara, baina guk ez di-

tugu gol aukerak aprobetxatu, bakarka jokatzeko aritu baika-ra», zioen, lehen zati amaieran, Maite Argote Hegoaldeko bigarren entrenatzaileak. 0-1 amaiztu ziren lehen 20 minutuak.

Bigarren zatian biziago atera ziren Tolosakoak; Diamante, berriz, nekaturik zegoela zirudien. Lurdes Zuriarrain Hegoaldeko atezainari esker, errioxarrek ez zuten golik sartzea lortu. Tolosakoek, berriz, hiru aldiz bidali zuten baloia sarera. Argoterren esanetan, «konfiantza hartu» zuten taldeak bigarren zatian: «Lehen zatian Errioxako taldea oso fin eta indartsu aritu da, baloi motelak azkarrean bilakatuz eta joko

bizia eginez; guk, ordea, ez dugu asmatu. Oso ongi etorri zaigu atsedendaldia, bigarren zatian talde jokoa egin baitugu. Horrela, haiek ezin izan diot gure jokoa irutsi».

Bi jokalariren lana ere gorai-patu du Hegoaldeko ordezkariak; haren ustez, Lurdes Zuriarrainek eta Miriam Aranak «bikain» jokatu zuten. «Miriam Arana esnatu egin da bigarren zatian, eta zer nolako jokalaria bikaina den erakutsi du. Lurdes atezainak egin duen partida ere azpimarratzekoa da».

«Aurreko jardunaldi ilunaren ondoren», lasaitasuna eta poza ekarri dizkiote hiru puntu hauek Hegoalderi.

TOLOSA ▶

David Moreau, Gipuzkoako txapelkun xakean

Hirugarren mailako txapelketa irabazi du Tolosako Xake Elkarteak jokalaririk

ERREDAKZIOA

David Moreau Tolosako Xake Elkarteak jokalaririk Gipuzkoako hirugarren mailako txapelketa irabazi du. Zazpi larunbat jarraitetan, Donostian aritu da, Gipuzkoako beste 33 jokalarirekin. Partida batzuetan nahikoa izan zuen bere aurkariaren akatsetat baliatzearekin; beste batzuetan, berriz, gogor erasotu eta aurkariak ezin izan zioten eutsi. Lehen sei txandetan irabazi eta azkenekoan berdinduta irabazi du txapelketa Moreau, nagusitasunez.

HEGOALDE ▶ 3

DIAMANTE RIOJA ▶ 1

Hegoalde Tolosa. Lurdes Zuriarrain, Miriam Arana, Itziar Aldezabal, Isa Barrio, Amaia Azpilikueta, Nerea Salazar eta Edurne Agirretxe. Entrenatzaileak: Virginia Amilibia eta Maite Argote.
Diamante Rioja. Lorena Gomez, Alicia Martinez, Teresa Marin, Elena Talavera, Beatriz Alcazibar, Maria Talavera, Sonia Gil, Mercedes Lopez, Edurne Arana eta Esther de Carta. Entrenatzaileak: Maria Jesus Jimenez de Pablo.
Golak. 0-1: Sonia Gilek (10m.); 1-1: Miriam Aranak (25m.); 2-1: Itziar Aldezabalek (38m.); 3-1: Miriam Aranak (39m.).
Epaileak. Sergio Mugueta Lascaro eta Jesus Maria Ramos Hernandez.

VILLABONA ▶ KULTURA

Abendua, kulturaz blai

Gaztetxoentzako zinea eta txotxongiloak, Hikaren antzezlan, Patxi Saiz abeslaria eta 'Kutsidazu bidea Ixabel'-en azken emanaldia, aukeran

IMANOL GARCIA

Hainbat kultur ekitaldi egingo dira abenduan zehar Gurea aretoan. Hasi haurrentzako zinema euskaraz eta helduentzako antzerki lanak arte.

Zinea gaztetxoentzat. Gurea aretoan zinema ikusteko aukera izango da abenduko igandetan, batez ere gaztetxoenei zuzendutako egitarauarekin. Hilaren 5ean, *Pinotxo* ikusi ahalko da, euskaraz. Hilaren 12an *Spiderman 2*, gazteleeraz. Eta hilaren 19an, *Doraemon gladiadorea*, euskaraz. Emanaldi guztiak arratsaldeko 17:00etan izango dira eta salneurria 2,5 eurokoa da.

'Ixa' antzezlan. Maiatzean egin behar zen emanaldia bertan behera gelditu zen aktorearen osasun egoera zela eta. Orain, Hika taldeak Gurean taularatu ahalko du Ixa izeneko lana, ostiral honetan, abenduaren 3an, gaueko 22:30etan. Antzezlan honetan Ixa izeneko pertsonaia izango da ustekabeko protagonista. Antzokira agindutako lan bat egitera joan da, baina aretoan dagoen jendeak ez dio ordaindu nahiko eta horrek Ixari bere historia kontatzera bultzatuko dio.

Patxi Saiz. Nostalgia eta erromantizismoa nahasirik, Patxi Saizen kantuek ahots indartsu eta sako bat erakusten dute. *Galdetzen* diskoaren aurkezpena egingo du abeslariak, Gurea aretoan, abenduaren 17an, gaueko 22:30ean.

'Bi eta zazpi edo zazpi eta bi' txotxongilo emanaldia. Adu-nako Asvinenearen eskutik, haurrei zuzendutako antzerki emanaldia, txotxongilo eta



Kutsidazu bidea, Ixabel obraren une bat Zelatungo zelaian egindako emanaldian. JOXEMI SAIZAR

guzti. Zazpi xagu eta bi dordoken arteko istoriak kontatzen dira. Abenduaren 26an, igandea, arratsaldeko 17:00etan izango da. Salneurria: lau euro.

'Kutsidazu bidea, Ixabel'. Liburu ezagunetik antzezlan arrakastatsua eta dibertigarria moldatu zuen Gorringo taldeak. Villabonan estreinatu zen 2003ko martxoan eta herrian egingo dute beren azken emanaldia, Inuxente egunean, hain zuzen. Olaederra kiroldegian izango da emanaldia, arratsaldeko 20:00etan eta, aipatu bezala, abenduaren 28an.



Ixa antzeslana ikusgai izango da ostiralean. HITZA

ZIZURKIL ▶

Erreserba egiteko aukera Intxaur pilotalekurako

Datorren urteari begira, pilotalekuko ordutegiaren erreserbak egitekotan da Zizurkilgo Udala. Honetarako, pilotalekuko orduren bat erreserbatu nahi duenari udalletean izena eman dezala eskatzen zaio, abenduak 10 baino lehen, 943 69 10 12 telefonora deituz. Abenduaren 17an, 19:00etan, ordutegia birbilkuko da. Orduren batean arazoak egonez gero zozketaz ereabakiko da.

IRURA ▶

Pertsona bat atxilotuta droga trafikoagatik

Ertzaintzak lagun bat atxilotu zuen larunbatean, gaueko 11:15ean. Iruran, droga trafiko delitua egotzita. Opel Vectra markako autoa gelditu eta miaketa egiten hasi ziren, drogarik izango zuen susmogatik, Ertzaintzako iturrien esanetan. Miaketa horretan, Portugalgo naziotasuna duen A.A.L.Dri poltsa batean *speeda* zuten 16 poltsatxo eta kokaina zuten 13 poltsatxo aurkitu zizkioten eta segidan atxilotuta eraman zuten.

VILLABONA ▶

Elkarriren Bake Konferentziari buruzko hitzaldia

Elkarrik hitzaldi bat antolatuko du gaur arratsaldeko 20:00etan Gurea aretoko erakusgelan. Bertan, Elkarrik Bake Konferentzia ekimenaren inguruan gizarte, politika eta nazioarte mailan garatzen ari diren lanen xehetasun guztiak emango ditu. Bestalde, egun bizi den egoera politikoaren giltzak atzematen ahaleginduko dira.

AIZTONDO ▶

Zumarragako azokara irteera jubilatuentzat

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak Zumarragako azokara irteera antolatu du jubilatuentzat, Santa Luzia egunerako, abenduaren 13an. Interesa duenak gaur du azken eguna izena emateko 943 69 39 30 telefonora.

"GURE BASERRITARREN PRODUKTUEZ OSATURIKO SASKIAK AUKERAN"

LUR-LAN Baserritar Elkarte
Hernandorena kalea, 11 • 20159 ZIZURKIL
Tel.: 943 69 20 54 • Faxa: 943 69 44 83
Posta elektronikoa: lur@euska.net

ORENDAIN ▶ KULTURA

Galderak, altxaldiak eta erantzunak

'50 galdera, 50 altxaldi' hitzaldia eskaini zuen herenegun Iñaki Perurena harri-jasotzaileak Eltxo elkartearen

OLAIA ESKITXABEL

Harri-jasotzaile jantzia soinean, 100 kiloko harria aurrean eta 50 galdera erantzuteke. Hori zen igande eguerdirako Iñaki Perurenari jarri zioten lana. Galdera bakoitzeko altxaldi bat egin behar; eta erantzuna eman behar, noski.

Igandeko meza nagusia entzun ondoren, Eltxo elkartera bildu ziren 70 lagun inguru. Lekua hartu eta iritsi bezain laister, Iñaki Perurenarengan jarri zituzten begiak bertaratu zirenek. Txorizoa, haragi egosia, txakolina... banatzen zen bitartean 50 altxaldi, 50 galdera titulupean antolatutako hitzaldiaren aurkezpena egiten hasi zen Perurena. Nabarralde elkartearen berri ematen hasi zen.

Jarraian, galdera ugari egin zizkieten herritarrek; batzuk, Euskal Herriko historiarekin, euskararekin... erlaziaturikoak; Goenkale telebista saioaren ingurukoak, besteak. Hainbat pasadizo eta txiste ere kontatzeko tartea hartu zuen leitzarrak.

Eroso ikusten zitzaion egindako galderei erantzuten eta horien ezean, bururatutako hausnarketak eta ekarpenak egiten. Harria jaso ezezik, txa-



Iñaki Perurena, 100 kiloko harria jasotzen. O.ESKITXABEL

kolin tragoxkak edateko ere hartu zuen denbora.

Nabarra hitzaren esanahiaz, euskal nortasunaz, lurraldetasunaz, titularitateaz... aritu zen luze Perurena; Euskal Herriko historia, egungo egoera... aztertze hainbat datu ere luzatu zituen. Saioan zehar, «euskal

kultura irautearen kultura da» eta antzeko esaldiak luzatu zituen, besteak beste.

Txakolin tragoxken ondorioz edo, galderen eta altxaldien kontua galduta, hitzaldia amaitzeko sei altxaldi egin zituen jarraian Iñaki Perurenak. Eta amaitzeko, txalo zaparrada.



Dispertsioa salatzen

ORENDAIN ▶ Askatasunak deituta, Euskal presoek Euskal Herritarrearen aldeko sinadurak jasotzen aritu ziren herenegun, igandean, Euskal Herriko hainbat herritan. Orendainen udaletxe aurrean izan ziren sinadurak jasotzen; bertan eman zuten goiz

OSOa. O.ESKITXABEL



Agur Kultur Asteari

IKAZTEGIETA ▶ Kultur Astearen baitan, ikaztegieta Udalak eta Galtzaundi Euskara Taldeak antolatutako antzezlanaren ikustera 62 haur eta guraso gerturatu ziren herenegun arratsaldean. Hamaika koloreetan dantzan emanaldian, Karramarroi, Oskola, Anne Monna eta Ozpintzar pertsonaien arteko elkarriketa musikatuak entzun zituzten. Bestiak eta dantzak uzartu ziren saioan. Igandeko emanaldi horrek eman dio amaiera aste bete iraun duen Kultur Asteari. O.ESKITXABEL

hilberriak ▶

eskelak hartzen dira: 19:00ak arte • 687 530258

Jose Ignacio Murua Luluaga

Herenegun hil zen, 46 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—

Bere ama: Maria (Jesusen alarguna); anai-arrebak: Bixente eta Isabel Martinez, Jose Mari eta Agurme Renobales, Maria Jesus eta Jose Perez; ilobak: Leire, Jon, Uxue, Adur eta Olatz; osaba-izebak, lehengusua eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko 19:00ETAN, JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, milia esker.

Helbidea ▶ San Joan kalea 83, 2. ezk. ALEGIA, 2004ko azaroaren 30a
Oharra ▶ Gorpu laguntza bere sendiaren artean egingo da

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.:616 93 17 88



Albztur. Lursaila duen baseria salgai. Berritzeko. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Alkiza. Villa individuala lursailarekin. Kapribox. 100 m2 eta hiru solairu. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Errezil. Landa turismoa alokairuan. Informazio pertsonala.
Ibarra. 69 m2 eta trastelekua duen etxe

eraike berria. Laugarren pisua. Igogailua.

Egongela, sukaldea eta bi logela.

Ibarra. 90 m2ko etxebizitza salgai; egongela, sukaldea, bi logela, jantzigela eta bi bainugela. Kanpoaldera. 32.500.000 pezeta.

Irura. Etxebizitza eraiki berria. Egongela, sukaldea, bi logela eta bainugela. Terraza eta garajea. Etxesagasti. 943 696856.

Ordizia. 291 m2ko villa salgai. 3 solairuko. 1.037 m2ko lursaila. Etxesagasti. 943 69 68 56

Ordizia. 50m2ko etxebizitza polita salgai. 2 logela, berrikuntza egin berria. Estreinatze. 25.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. 80 m2 inguruko etxebizitza salgai. Hiru logela. Erabat berritua, altzariz hornitua. Eguzkitsua. Igogailua.

Tolosa. 85 m2ko etxea; hiru logela. Berritzeko. Igogailua. 36.000.000 pezeta negoziagarriak. 943 69 68 56.

Tolosa. Foru Etorbidean 110 m2ko

etxebizitza eta 40 m2ko terraza.

Trastelekua; igogailua. Bizitzera sartzeko prest. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 90 m2ko etxebizitza eraiki berria salgai. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 70 m2ko etxebizitza salgai. Erabat berritua. 32.640.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 80 m2ko etxebizitza salgai.

Erdi berritua. 35.000.000 pezeta.

Zizurkil. 61 m2ko eta 8 m2ko trasteroa duen pisu altua. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Guztiz berritua. Kanpoaldera. Altzariek.

Zizurkil. Etxebizitza polita salgai. Berritua. Egongela, sukaldea, bi logela eta bainugela. Altzariek.

Behar dira. Eskaera handigatik: landa eta hirigntza lursailak, etxebizitzak, villak, baserriak... salgai edo alokairuan. Etxesagasti. 943 69 68 56.

OREXA ▶ GIZARTEA

Taberna eta jatetxea, martxan berriro ere

Lurdes Uzkudun tolosarrak ireki du taberna, ostiralean egin zuelarik inaugurazio ekitaldia herritarrentzat



Lurdes Uzkudun herritarrei *lunch*-a serbitzen inaugurazioan.m.s.

MADDI SOROA

Ostiralean egin zuten inaugurazio ekitaldia Orexako tabernan 20:00etan. Nerea Herrarte eskaintako ipuin kontaketaren ondoren, hain zuzen ere. Herritar mordoa joan zen irekiera ekitaldira, pozik eta oso gustura gainera.

Bazen lehendik ere taberna eta jatetxea herrian, baina hila-

beeetan zehar itxita egon da. Orain, ordea, berriro ere zabaldu ditu ateak Lurdes Uzkudunek. Hala ere, asteburuetan, sukaldari eta kamarero baten laguntza izango du Uzkudunek martxa eramateko.

Uzkudun tolosarra da izatez, baina ezaguna da Orexako herritarren artean; izan ere, bertako dinamizatzailea izan baitzen. Orain, ordea, tabernari

lana betetzeko gogoz dator. Lanean animoz hasi al den galde-tu oostean, zera adierazi du Uzkudunek «gustura nago egingo dakoarekin, baita animoz ere; horrelako zerbait ez bada gogoz hartzen jai dago!». Alaitasun bera adierazi dute herritarrek ere irekieraren inguruan. Tabernan bildutako jende mordoa da horren islada garbia. Uzkudunek azaldu duenaren arabera, «herritarrek taberna irekitzeko gogoz zeuden. Ez dago beste tabernarik herrian, eta jendeak hemen bilatzen du elkartzeko tokia». Era berean, «herriari bizia» ematen diola adierazi du Uzkudunek.

Orexako taberna eta jatetxea, egunero egongo dira irekita asteartean izan ezin. Denetik aurki daiteke bertan, hala nola, razioak, ogitartekoak edota plater konbinatuak. Bestalde, eguneroko menua ere bada zazpi euroren truke. Asteburutako menua, berriz, hamar euro eta erdiko izango da. Horretaz gain, ordea, honako berezitasunak dasta daitezke aurretik enkargatuz gero: herriko jakien artean, arkumea, etxeko entsalada eta entsalada ekologikoa; postreko herriko mami eta gazta eta nahi izanez gero karta ere eska daiteke. Aipatu enkarguak egiteko, deitu behar da 943 6 21 54ra.

BERROBI ▶

Haur eta helduentzako ekintzak

Gaur San Andres herriko patroia dela eta, Udalak hainbat ekintza antolatu ditu haurrentzat arratsaldean zehar. Lehenik, askaria izango da 17:10ean nahi duen orrentzat. Ondoren, 17:45ean buruhandiak izango dira. Amaitzeko, Iñaki Zubeldia idazlearen ipuin kontaketa izango da 18:15-ean liburutegian. Ipuin kontaketa bost urtetik aurrerako haur eta gazteei dago zuzendua. Udalarekin batera, Galtzaundi Euskara Taldea izan da ipuin kontaketaren antolatzailea. Bestalde, 20:30ean bertso afaria izango da Sebastian Lizaso eta Iñaki Muruarekin.

IBARRA ▶

Hitzaldia izango da gaur Jubilatutako Elkartearen

Bizi Nahi jubilatutako elkarteak, hitzaldia antolatu du gaur 19:00etan. Hitzaldia elkartearen bertan burutuko da. Edurne Agote sendagilea izango da hizlaria eta hitzaldiaren gaia, berriz, *Bizkarrezurren doikuntza eta kiropraktika*. Hitzaldiaren amaieran, *lunch*-a eskainiko zaie hitzaldira hurbildu diren guztiei. *Lunch*-arekin batera, galderak egin, dudak argitu, norberaren esperientziak azaldu eta abarrerako aukera izango dute entzuleek. Edurne Agote, entzuleen galderei erantzuterako prest egongo da.

IBARRA ▶

Odola emateko aukera gaur anbulatorioan

Gaur, 19:00etatik 20:00etara odola ateratzeko aukera eskainiko du anbulategiak. Ibarako Organu Emaleen Elkarrekin adierazi duenaren arabera, normalean biltzen den jende kopurua baino gehiago behar da, izan ere, ez baita nahikoa normalean bildu ohi den odol kopuruarekin. Gaurak horrela, gazteei deialdi berezia egin nahi izan dio elkarteak. Era berean, donazio gutxi den herrietako bat dela gogorarazi du. Beraz, odol emaleen kopurua handitzeko asmoa agertu eta gaur ahalik eta jende gehien biltzea eskatu die elkarteak Ibarako herritarrei.

IBARRA ▶

Kiroldegiko ordainketarako abisua

Urtero moduan, Belabieta kiroldegiko bertako sozioekin harremanetan jarri nahi du, 2005eko urtarrileko lehen hamabost egunetan urteko kuota kobratuko dela jakinarazteko. Sozio izateari utzi nahi dionak edota fitxako datuak bat aldatu nahi duenak hala nola, kontu korronteko zenbakia, salneurriaren aldaketa, familia ugariaren ziurtagiria, familia abonua etab. 943 67 15 44 telefono zenbakira hots egin beharko du. Nahi duenak, kiroldegitik pasata egin dezake, bihurtik hasita abenduaren 31 bitartean.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47-behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Alegia. San Juan kalean 161 m2ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

Anoeta. 60 m2. Logela, egongela, sukaldia, bainugela. Berokuntzarekin. 192.325 euro.

Anoeta. Iturburu. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela. Berokuntzarekin.

Asteasu. Eraikuntza berriko ebea. 4 solairurekin, jardina eta terraza. Oso egoera onean.

Berrobi. 2 logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 Euro.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku eta garajearekin.

Ibarra. Julian Gaiarren. Berritutako etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldia, egongela eta komuna.

Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldara.

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ikaztegieta. Eraikuntza berriko etxe atxikia salgai. 270.455 euro.

Legerretta. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela. Berokuntza eta trastelekuarekin. 142.440 euro.

Ordizia. Berritutako etxebizitza merkea salgai.

Tolosa. Iurre 3 logelako pisua, ganbara eta garajea aukeran.

Tolosa. Iurre. Garaje itxia salgai.

Tolosa. Iurre inguruan guztiz berritutako 2 logelako etxebizitza.

Tolosa. Belate. 3 logela eta 2 bainugela. Berritua.

Tolosa. Erdialdean. 130 m2ko etxebizitza salgai. 4 logela (1 bulego bezala egokitua). Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Emeterio Arrese. 110 m2. 3

logela, bi bainugela, garajea.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 142.440 eurotik aurrera.

Tolosa. Santa Klara. 4 logela. Berokuntza. Ilogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

Tolosa. Santa Klara. 2 eta 3 logelako pisuak salgai, sukalde, egongela eta bainugelarekin. Berokuntza. 167.090 Eurotik aurrera.

Tolosa. Larramendi. Orain dela gubiko eraikuntza. 2 logela, sukaldia, egongela eta trastelekuak.

Tolosa. Berokuntza. Ezin hobeto.

Tolosa. Amaro azoan oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai.

Tolosa. Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Foruen Etorbidean guztiz

berritutako etxebizitza salgai.

Ikustekoa!!!

Tolosa. Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrarekin. Aukera paregabear!!!

Tolosa. Lurrarmendi ibiltokia. 4 logelako etxe atxikia.

Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

Villabona. Etxeondo. Pisu ganbara eta garaje itxiarekin.

Villabona. Errota. Pisu ganbara eta garaje itxiarekin.

Villabona. Oriamendi. 3 logela, egongela, sukaldia. 210.355 euro.

Villabona. Kale Berrian. Eraikuntza berriko etxe salgai. Garaje bikoitza itxia aukeran.

Villabona. Larrea eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Igor Astibia presoaren askatasuna eskatu dute herritarrek

Ostiralean burututako manifestaldian, egun bereko goizean emandako prentsaurrekoaren erabilpena ere salatu dute



Manifestazioaren bukaeran, plazan, goizean prentsaurrekoan irakurritako idatzi bera irakurri zuten senideek eta horretaz hainbat komunikabidek egindako erabilpena salatu. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Ostiral iluntzean, 200 bat lagunek parte hartu zuten hilabete-ko azken ostiraletan burutu ohi den presoaren aldeko ekimenean. Kasu honetan, *Euskal presoak etxera! Igor askatu!* leloa izan zuten lehen buruko, azaroaren 18az geroztik, lehendabizi Soto del Realen (Espainia) eta asteazkenetik Navalcarneron (Espainia) preso daukaten Igor Astibia herritarra gogoan.

Ibilbidea bukatutakoan, plazan bildu ziren parte-hartzaileak eta han, Igor Astibiaren senitartekoek hartu zuten hitza, hain zuzen ere, egun horretan berean, goizez, Kontseiluak Iruñean eman zuen prentsaurrekoaren inguruan, zeinetan gurasoek parte hartu zuten

ere, hainbat komunikabidek «berriz ere» egindako erabilpena salatu nahi izan baitzuten, «herritarrek horren jakitun egon zitezten», han adierazi zuten.

Horrela, bada, Iruñean goizean emandako prentsaurrekoan gurasoek esandakoa, hitzez hitz irakurri zuten herritarren aurrean, gero, «norberak komunikabideetan agertutakoa, harrekin bat zetorren erabaki zezan», esan zuten. Ondoren adierazi zuten, «esaterako ETBko albistegietan esan dutenak ez du deus ikustekorik gurasoek goizean adierazi dutenarekin: interesatzen zaien esaldi zati bat hartu, hain zuzen ere zenbait mediok herriotz bat egotziz egindako akusazioen aurkako salaketa egi-

ten ari zeneko esaldi zatia, kontestuz kanpo atera eta hain justu prentsaurrekoan salatu nahi izan dutena bera egin dute berriz ere», argitu zuten. Han jakitera eman zuten, ostiral arratsaldean bertan, familiarak, minduta, prentsa-oharra igorri omen zuen ETB-ra, «goizeko prentsaurrekoaz egindako erabilpena salatuz eta zuzenketa bat egiteko eskatuz», adierazi zuten, «ez baitira txantxetako kontuak».

Herriko auzo desberdinetan barrena «euskal presoak etxera!», «Igor askatu!» eta torturaren aurkako deiadarrak tartekatuz egin zuten manifestazio eta ekitaldia *Eusko gudariak* kantatuz amaitu zituzten, herriko plazan. Oraingoan, bistako «zaintzarik» gabe.

LEITZA ▶ KULTURA

Leitzarrak gustura dira egindako lanarekin

Nafarroako Kantu Txapelketako finalean izan eta bertako giro ona nabarmendu dute

J. ASTIBIA

Larunbat arratsaldean jokatu zen Nafarroako Kantu Txapelketako finala Doneztebeko Bordatxo aretoan eta saria Maider Ansa aranoarrak irabazi zuen, iazko antzera.

Saririk irabazi ez bazuten ere, bertan parte hartu zuten 19 talderen artean, hantxe ziren herriko bi: Nerea Erbiti bakarlari gisa eta, Maddi Olano eta Birginia Mariezkurrena bikotekako sailean. Eta hirurak ere, oso gustura gelditu ziren jendaurrean egindako lanarekin eta baita bertan sortu zen giroarekin ere. «Hurrengo urtean berriz joanen gara», zio-

en Mariezkurrenaren. Erbitik adierazi zuenez, «jendeak ondoren ongi aritu nintzela esanez egin zizkidan komentarioek eta, asko animatu ninduten». Bestalde, aurtengo parte-hartzaileen maila onaz ere jabetuta, «ez nukeen epai-mahaiko kide izan nahi» erantsi zuen, «han erakutsi zen maila ikaragarria zen», argudiatuz.

Antolakuntzaren datuen arabera, 500 lagun bildu ziren kantariak entzutera eta giro aparta izan zen, «bukaeran parte-hartzaile guztiek, ikusleekin batera, elkarrekin hainbat kantu egin genituen» nabarmendu zuten.

LEITZA ▶ KIROLA

Jurramendira igo eta ondoren ardandegira

20 lagunek parte hartu dute; bidean lainoa izanik ere, tontorrean argiunea izan dute

J. ASTIBIA

Igandean Jurramendira joan ziren herriko hogeita lagun, Mendibil eta Kultur Taldeak antolatutako irteeran.

Iratxe monastegitik atera ziren mendizaleak, gorantz, eta bidea lainoan egin zuten «lurrerainoko lainoa zegoen, oso itxia», adierazi zioten atzo HIRZARI parte-hartzaileek, parajeak eta mendia bera gehiegi ikusteko aukerarik izan ez zutelarik ondorioz. Baina, hala ere gailurrera iristerako, argitasun une bat izan omen zuten

eta konforme antzean egin zuten jaitsiera, oraingoan Aiegi-ara.

Ordu bata eta erditan jada, Lakarren ziren, bazkaria esportean zuten Lezaun ardandegian. Baina gosea asetzen hasi baino lehenago, bisita egin zuten ardandegiko instalazioetan barrena eta bertan egiten duten ardo ekologikoaren ekoizpen zentruaren nondik norakoak jakin eta ikusi ez ezik, bertako produktuak dastatzeko aukera ere izan omen zuten. Gero bai, jaki goxoak dastatuz, bazkaria egin zuten.

hitza

txokoa^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'



▶ HITZAren harpidedun laguntzaile bazara, ARANZADI zientzia elkarteak argitaratutako Koro Muro Arrieten TOLOSALDEA BERE TESTAMENTUETAN (1760-1860) liburua DOAN eskura dezakezu.

▶ DEITU ETA HAR EZAZU PARTE 10 LIBURUREN ZOZKETAN **943 65 56 95**
ZU IZAN ZAITEZKE IRABAZLEETAKO BAT!
(11:00-13:00 / 16:00-19:00)

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 30a, asteartea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartasleka, Adura, Albitur, Alege, Alkiza, Alzo, Amerieta, Aneta, Bakarran, Belantza, Berastegi, Etxain, Herrialde, Ibarra, Inza, Lantzi, Leizorri, Lizaso, Omeiza, Omeza, Tolosa, Villabona, Zuzaldi

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza.
Kultura Salla

FORO JAIKARRAK
TOLOSA HERRIA

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena **10** hotzena **7**

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berrobi. Haur ekitaldiak San Andres dela eta: 17:10ean askaria; 17:45ean buru handiak; eta 18:15ean Iñaki Zubeldiaren ipuin kontaketa liburutegian. Bertso-afaria Lizaso eta Muruarekin 20:30ean. **Ibarra.** Merkatu Txikirako material bilketa 17:00etatik 20:00etara Parrokian. **Ibarra.** Odola emateko aukera anbulategian 19:00etatik 21:00etara. **Tolosa.** 53ko kintoek festa egingo dute igandean. Bazkaria Fronton jatekxan da. Izen-ematea, bertan. **Tolosa.** Gaur EGA ikastaro berria hasiko da Aitzol udal eskalategian. Izen-ematea eskalategian.

HITZALDIAK

Ibarra. Edurne Agote doktoarearen *Bizkar hezurriaren ajuste eta kiropraktika* Bizi Nahi jubilatuen elkartearen 19:00-etan. Ondoren *luncha*. **Leaburu.** *Arauk eta mugak elkarbizitza familiar baterako* Guraso Eskolan, 18:00etan udaltxeko gazte gelan. **Tolosa.** Batxilergo 1. eta 2 eta DBH 4. mailako ikasleen gurasoentzat: *Nola lagundu gure seme-alabak ikasten?* Orixe Institutuan 19:00etan. **Villabona.** Elkarri-ren Bake Konferentziaren inguruan ari diren lanen xehetasunak. Gurean 20:00etan.

TITIRIJAI

Tolosa. 10:30, 15:00 eta 18:30, Kultur Etxea. Ateliera 313 (Bulgaria): *Peter Pan*. 10:30 eta 15:00, Beotibar. Pitara Putli (India): *Swaagat-Festa Rajhastanen*. 11:00 eta 15:00, Kasinoa. Brakabrik Theatre (Frantzia): *Burbuilatik*. 11:00, 15:00 eta 17:30, Leidor. Tanti Cosi Progetti (Italia): *Txanogorribu*. 12:00 eta 15:00, Gorosabel. Harleking Babszin haz (Hungaria): *Craking clapping* 20:30 eta 22:30, Kasinoa (helduak). Fernan Cardama (Espainia): *La vuelta al mundo en 80 dias*.

ZINEMA


Alegia. Mike Leigh-en *Todo o nada* Gaztetxean 21:30ean

Santa Zeziliaren omenez

TOLOSA ▶ Entzule asko bildu zen herenegun Leidorren herriko taldeen kontzertua entzuteko; Musika Bandak Bueno eta Civico omendu zituen



Bi omenduak txapelekin eta opariekin, ondoan udal, Banda eta Amaroizko ordezkariek dituztela. MIKEL ZELAIJA



Udal Txistulari Banda bere saioan. J.SAIZAR



Isidro Larrañaga eta bere akordeoi orkestra. J.SAIZAR


JOXEMI SAIZAR

Urtean zehar egindako lanaren islada izan zen igandeko kontzertua Leidorren. Eszenatik Tolosako sei musika talde pasatu ziren, Santa Zezilia musikari zaindariaren eguna zela eta —astelehenean izan zen, azaroak 22— Musika Bandak antolatutako emanaldian. Makina bat musikari, heldu eta gazte, aritu zen bere onenak emanez zaindariaren omenez. Entzulegoa ere portatu zen. Jende asko bildu zen Leidor aretoan musikari lana entzuteko.

Herriko bi akordeoi orkestra —Maiatz eta Isidro Larrañagarena—, Hodeiertz abesbatza, Giroarte dultzainari taldea, Udal Txistulari Banda eta Tolosako Musika Banda izan ziren oraingoan partaide. Txalo ugari jaso zituzten bere doinuak eskaini ondoren.

Bi taldekidek hainbat urtean zehar egindako lana eskertzeko aprobetxatu zuen Musika Bandak: Juan Mari Bueno eta Rafael Civico. Bere saioaren aurretik eszentokira atera eta Udalaren, Amaroizko lagunena eta Bandaren txapelak eta opariak jaso zituzten txalo artean.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Aratz Alkain Gorostidi (Amezketan). Gaur urte bat. Zorionak etxeko partetik, bereziki osaba Josebak.



URTE ASKOAN

Joakin Ibarluzea (Tolosa). Gaur 80 urte. Bere emazte, senide, familia eta bilobeen partetik.



URTE ASKOAN

Asier Arburua (Zizurkil). Gaur 5 urte. Zorionak aitabko, amabko eta Iraiaren partetik.



URTE ASKOAN

Aratz Alkain Gorostidi (Amezketan). Gaur urtebete. Zorionak etxeko partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaltxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!